

DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA BETETZEKO ETA **AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK**

Nork eska dezake?

2014-2015 denboraldian zehar, Eskola Kirola programaren barruko lehiaketa jardueretan parte hartu duten erakundeek eta Heziki hezkuntza jardueran.

*Diru laguntzen kalkulurako behar bezala inskribatutako parte-hartzaileak eta taldeak soilik hartuko dira kontuan. Gora beherak eskola kiroleko programan kontsulta ditzakezue: entitate, talde edo norbanakoaren **Inskripzioak** atalean, **Intzidentziak** fitxan.*

Noiz?

2015eko **maiatzaren 11tik 29ra**.

Non?

Kirol Zerbitzua (BFA): **Rekalde zumarkalea 30, 1. BILBO**
(astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era).

Zer aurkeztu behar dut?

Kulturako Foru Sailak, aurten, batu egin ditu deialdi guztietarako eskabideak eta eranskinak. Ondorioz, eredu orokor bat dago, eta, gure kasuan, **ez da beharrezkoa datu guztiak** betetzea:

1. DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA: E2 EREDUA (ikus 1. eranskina)

Eredu honetan datu hauek bete behar dira:

(ERAKUNDE) ESKATZAILEAREN DATUAK

Inskribatutako erakundearen Identifikazio Fiskaleko Txartlean agertzen diren datuak jarri behar dira, **aldaketarik gabe**.

ESKATZAILAREN DATUAK ¹		DATOS DE LA SOLICITANTE ¹	
IFZ / NIF X11111111		Deiturak eta izena, izendura edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre o razón social ² AMPA IES SAN BARTOLOME	
Sexua / Sexo ³ <input type="checkbox"/> Gizona / Hombre <input type="checkbox"/> Emakumea / Mujer		Helbidea (kalea, plaza...) / Domicilio (calle, plaza, etc.) SAN BARTOLOME, 75	
Etxe zk. / N.º casa	Eskailera / Escalera	Solairua / Piso 2º	Atea / Puerta B
Udalerría / Municipio ARRALDE		P. K. / C. P. 99999	
Lurraldea / Territorio ⁴ BIZKAIA		Telefonoa / Teléfono 22 2222222	Sakelakoa / Móvil 333 333 333
Posta elektronikoa / Correo electrónico ies.san.bartolome@bizkaia.eu		Faxa / Fax	
Web orria / Página web			

ORDEZKARIAREN DATUAK

Erakundeko **presidentearen** edo **zuzendariaren** datuak, edo, bestela, Eskola Kirola 2014-15 programan **Eskola Kiroleko arduradun** gisa agertzen den pertsonarenak.

ORDEZKARIAREN DATUAK ⁵		DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE ⁵	
IFZ / NIF 55.555.555A		Deiturak eta izena / Apellidos y nombre JUAN LOPEZ LOPEZ	
Eskatzailearekin harremana / Relación con la solicitante PRESIDENTE			
Telefonoa / Teléfono 444 444 444	Sakelakoa / Móvil	Faxa / Fax	Posta elektronikoa / Correo electrónico juan.lopez@bizkaia.eu

BANKU HELBIDERATZEAREN DATUAK

Erakundearen bankuko kontuaren datuak. Erakunde titularraren datuek bat etorri beharko dute inskribatutako erakundearen Identifikazio Fiskaleko Txartlean agertzen diren datuekin, **aldaketarik gabe**.

BANKA HELBIDERAKETAREN DATUAK / DATOS DE DOMICILIACIÓN BANCARIA					
Kontu korrontearen jabearen izen-deiturak / Nombre y apellidos de la persona titular de la cuenta					
BIC	IBAN kodea Código IBAN	Erakundea Entidad	Sukurtsalaren zk. Sucursal nº	KD / DC	Kontuaren zk. / Nº de cuenta

PROIEKTUAREN DATUAK

Ez bete

PROIEKTUAREN DATUAK / DATOS DEL PROYECTO		
Proiektua/Proyecto		
Proiektuaren zenbatekoa / Importe proyecto	Eskatutako kopurua / Cantidad solicitada	Eskatzailearen ekarpena / Aportación Solicitante

DIRU-LAGUNTZA ONARTZEKO SINADURA ETA BALDINTZAK

Baldintzak zehaztu behar dituzu (X bat jarri), eta ordezkariaren **SINADURA** eta erakunde eskatzailearen **ZIGILUA** gehitu.

<p>Eskatzaileak adierazten du ez dagoela onuraduna izateko ezin debekutan sartuta. Debeku horiek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluko 2. eta 3. puntuetan daude zehaztuta.</p>	<p><i>La solicitante declara no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.</i></p>															
<p>Eskatzaileak adierazten du proiektu hau egiteko ez diola beste diru-laguntzarik eskatu beste erakunde publiko edo pribatu bati.</p> <p>Eskatzaileak adierazten du proiektu hau egiteko diru-laguntza eskatu diela beheko entitate eta/edo erakunde hauei:</p>	<p><i>La solicitante declara no tener ni haber solicitado ninguna otra subvención económica a entidades públicas o privadas para la realización de este proyecto.</i></p> <p><i>La solicitante declara haber solicitado una subvención para la realización de este proyecto a los organismos y/o entidades que se detallan a continuación:</i></p>															
<table border="1"> <thead> <tr> <th>ENTITATEA / ERAKUNDEA ORGANISMO / ENTIDAD</th> <th>ZENBATEKOA IMPORTE</th> <th>EGOERA ¹ SITUACIÓN ¹</th> </tr> </thead> <tbody> <tr><td> </td><td> </td><td> </td></tr> <tr><td> </td><td> </td><td> </td></tr> <tr><td> </td><td> </td><td> </td></tr> <tr><td> </td><td> </td><td> </td></tr> </tbody> </table>	ENTITATEA / ERAKUNDEA ORGANISMO / ENTIDAD	ZENBATEKOA IMPORTE	EGOERA ¹ SITUACIÓN ¹													
ENTITATEA / ERAKUNDEA ORGANISMO / ENTIDAD	ZENBATEKOA IMPORTE	EGOERA ¹ SITUACIÓN ¹														
<p>¹ Eskatutako diru-laguntzaren egoera:</p> <p>ebatzi gabe</p> <p>emanda, baina kobratu gabe</p> <p>kobratuta</p>	<p>¹ Situación en que se encuentra la subvención solicitada:</p> <p>pendiente de resolución,</p> <p>concedida pendiente de cobro</p> <p>cobrada</p>															

Bilbo, 2015eko ren a

Bilbao, a de de 2015

Sinadura / Firma

Dokumentu honen amaieran, 12. artikuluko 2. eta 3. zenbakiak dituzu zehaztuta.

2. ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA: E3 EREDUA (ikusi 2. eranskina)

Eredu honetan eskabidearekin batera aurkeztutako agiriak zehaztu behar dira, eta hauek baino ez dira beharrezkoak:

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIO OROKORRA

Erakunde eskatzailearen **IFK-REN FOTOKOPIA**

BANKU HELBIDERATZEAREN FITXA (edo HARTZEKODUNARENA)

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIO OROKORRA ¹ / DOCUMENTACIÓN GENERAL ADJUNTADA ¹ (Dekretuko 4. artikulua 3. zenbakia / Artículo 4, apartado 3 del decreto)		
Diru-laguntza Eskabidea sinatzen duenaren NANaren fotokopia <i>Fotocopia del DNI de la firmante de la Solicitud de subvención</i>	Non aurkeztu zen / <i>Dónde se presentó</i> ¹	Data / <i>Fecha</i> ¹
Estatutuen fotokopia edo eratze-eskriturak <i>Fotocopia de los estatutos o escrituras de constitución</i>		
Pertsona/lzakunde eskatzailearen IFZren fotokopia ² <i>Fotocopia del NIF de la persona/entidad solicitante</i> ²		
Dagokion Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria <i>Certificado de estar inscrito en el Registro correspondiente</i>		
Banku Helbideraketaren fitxa ³ <i>Ficha de domiciliación bancaria</i> ³		
Ahalordearen ziurtagiria ⁴ <i>Acreditación de la representación</i> ⁴		


ERANTSITAKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

Atal honetan agertzen diren agiriak **zehaztutako kasuetan baino ez dira aurkeztu behar.**

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA / DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA ADJUNTADA (Dekretuaren 4. artikuluko 4. zenbakia / Artículo 4, apartado 4 del decreto)
%33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa duela egiaztatzen duen dokumentua, Migrazio eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzak edo erakunde balioak aitortutakoa. ¹ <i>Certificado acreditativo de tener reconocida la condición de persona con discapacidad de grado igual o superior al 33% expedido por el Instituto de Migraciones y Servicios Sociales, Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia o equivalente.</i> ¹
Parte hartu duen jardueren egutegiaren kopia. ² <i>Copia de los calendarios de actividades en las que ha tomado parte</i> ²
Jarduera egin den lurralde historikoko aldundiak emandako frogagiria. ³ <i>Justificante expedido por la Diputación Foral del Territorio Histórico donde se haya realizado la actividad.</i> ³
Kudeaketa integralaren hobekuntzarekin lotutako beste erakunde ofizial batzuek luzatutako ziurtagiriak, eta beraien edukia. ⁴ <i>Certificados emitidos por organismos oficiales relacionados con la mejora de la gestión integral y contenido de dicho certificado.</i> ⁴

Mesedez, ahalegindu zaitzte dokumentazioa ondo betetzen. Zuen esanetara gaukazue edozein argibiderako, 94406 8782-8777-8541 telefonoetan edo **eskola.kirola@bizkaia.net** helbidean.

Diru-laguntzari buruzko foru dekretua web orri honetan kontsulta dezakezue: www.bizkaia.net/eskolakirola Arautegia – Bizkaia atalean (Begiratu hurrengo orrian)



Bilbo, 2015eko apirilaren 28an

ESKOLA KIROLAREN ATALEKO BURUA
JEFE DE SECCIÓN DE DEPORTE ESCOLAR

JAVIER DE MARIA GARCIA

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikulua

Pertsona onuraduna edo erakunde laguntzailea izateko betekizunak

.....

2. Ondoko egoeretariko edozeinetan dauden pertsona edo entitateak ezin izan daitezke foru arau honetan arauturiko diru-laguntzen pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak, diru-laguntzaren izaeragatik beragatik diru-laguntza mota bakoitzaren oinarri-arauetan kasu hori salbuetsi ezik:
 - a) Epai irmoaren bidezko kondena baten ondorioz, diru-laguntza edo bestelako laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu izana.
 - b) Konkurtsoaren adierazpena eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabearen adierazpena jaso izana, konkurtsoaren adierazpena jaso izana, salbu hitzarmen baten eraginkortasunez lortu bada, esku-hartze judizialaren menpean egotea edo Lege Konkurtsalaren arabera desgaituak gertatu izana, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntza-epea artean amaitu barik dagoela.
 - c) Direlako pertsona edo entitateak errudunak direla adierazi deneko auziren batengatik, Administrazioarekin sinaturiko edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana.
 - d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak bateraezintasun kasuren batean egotea, gai horiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera.
 - e) Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak beteta ez izatea. Aurreko lerroaldean xedaturikoa ez zaie aplikatuko Bizkaiko Lurralde Historikoaren gizarte zerbitzuen sistemak babesturiko kolektiboetako pertsona fisikoei zuzendutako diru-laguntzei.
 - f) Zerga-egoitza arau bidez zerga-paradisutzat harturiko herrialde edo lurralde batean izatea.
 - g) Diru-laguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharrak ordaintzeari dagokionez, egunean ez egotea.
 - h) Sexuarengatiko edonolako diskriminaziorik sortzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso izana, zehapenean ezarritako epean zehar.

- i) Ebazpen irmoaren bidezko zehapen baten ondorioz, foru arau honen edo bestelako araudietako xedapenen arabera diru-laguntzak jasotzeko aukera galdu izana.
 - j) Foru arau honen 10. artikuluko 3. idatz-zatiko bigarren lerrokadan aurreikusitako elkarteak ezin izan daitezke pertsonan onuradunak, baldin eta haien kideetariko edozein goiko debeku egoeretariko edozeinetan badago.
 - k) Diru-laguntzak jasotzeko debekuek eragina izango dute, halaber, horiek jaso dituzten enpresen jarraipentzat jo daitezkeen enpresetan, enpresa horietako pertsonengatik edo beste egoera batzuegatik hala sumatzen denean, edo horietatik eratorri direla uste denean, aldatzeagatik, bat egiteagatik edo ondorengo izateagatik.
3. Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5 eta 6. paragrafoetan aurreikusitako debeku arrazoiak baten bat biltzen duten elkarteak ezin izango dira inola ere izan foru arau honetan arauturiko diru-laguntzen pertsona onuradunak edo erakunde laguntzaileak.

1/2002 Lege Organikoaren 30.4. artikuluan xedaturikoa aplikatuz, ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik elkarte baten inskripzio prozedura administratiboa etenez gero, delako elkarte hori ere ezin izango da pertsona onuraduna edo erakunde laguntzailea izan, harik eta ebazpen judizial irmo baten ondorioz dagokion erregistroan inskribatzeko aukera ematen zaion arte.

.....